BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2988

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 2koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Garapenerako Lankidetzaren kontura ekintza humanitario bati diru-laguntza ematen diona, UNRWA-Euskadi erakundearen alde (PRE-2014BA/0009).

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak arautzen ditu Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak, eta bi jarduera-mota bereizten ditu. Alde batetik, larrialdietan laguntzeko proiektuak daude: haien bidez, oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak eskuragarri jarri nahi dira, biziraupena bermatzeko eta hondamendiek eragindako pertsonen sufrimendua eramangarriago egiteko. Beste aldetik, ekintza humanitarioko proiektuak, zentzu zabalago batean; horri lotutako jarduerak larritasun-maila txikiagokoak dira eta garapena, giza eskubideak eta bakegintza sustatzeko oinarri batzuk bultzatzeko dira.

Aipatutako dekretuaren 4. artikuluak dioenez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren bidez, urtero egingo da laguntza-deialdia. Eskuartean dugun kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren eta Lehendakaritzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuaren aurreikuspenak batera aplikatuta, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokio eginkizun hori.

2014ko urtarrilaren 21eko Ebazpenaren bidez (2014ko urtarrilaren 31ko EHAA) egin zen garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako 2014rako laguntzen deialdia.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak erabakiko du nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman beharko diren ebazpenak.

Horren ondorioz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikuluaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikuluaren arabera, 2014ko ekainaren 17an elkartu zen Kontseilu Errektorearen proposamenez, kontuan hartuta aipatutako otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak xedatutakoaren arabera, laguntzak EHAAn argitaratuko direla denek horren berri izan dezaten, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Larrialdi eta ekintza humanitarioa sustatzeko laguntza-eskari bati diru-laguntza ematea. Diru-laguntza hori finantzaketa-lerro iraunkorrean UNRWA-Euskadi erakundeak aurkeztu zuen «Ayuda alimentaria para la población más vulnerable de la Franja de Gaza» proiektua ordaintzekoa izango da.

Bigarrena.– Laguntza 199.985 euroko ordainketa bakarrean ordainduko da. Proiektua 2014ko azaroaren 1ean hasiko da, eta 2015eko apirilaren 30ean amaituko. Beraz, diru-laguntza justifikatzeko gehieneko epea 2015eko abuztuaren 29an amaituko da.

Hirugarrena.– Agindu hau erakunde eskatzaileari bertatik bertara jakinaraztea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen. Honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 2a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.